





## APNEALINK GAILUA JARTZEA


Jarri gerrikoa elastiko baten gainetik, estutzen ez dizula. Ipini gailua bularraren gainean, traba egiten ez dizun lekuan, kableak behetik ateratzen direla.



1. Jarri gerrikoa gorputzaren inguruan. Pasatu gerrikoan libre dagoen muturra esfortzu-sensorearen artekatik eta itsatsi mihia gerrikoan.



2. Egjatzatu gerrikoa sendo eta eroso geratu zaizula eta gailua bularraren erdian dagoela.




- 3.- Oximetro bat erabili behar baduzu, sartu pintza gerrikoan. Pintzak eta oximetroaren sensore digitalak gorputzaren alde berean egon behar dute.

### Sudurreko kanula jartzea



- 1.- Sartu puntak sudur-zuloetan. Ziurtatu alde makurra sudurraren atzeko aldera begira geratu dela.




- 2.- Pasatu plastikoaren hodia belarrien atzetik.



**Sentsore digital berrerabilgarria jartzea:**


Hartu gomazko atzandela eta pasatu gerrikoaren barnealdetik leporantz. Ondoren, sartu elastikoaren lepotik, atera jarriko duzun eskuko mahukatik (ahal bada, nagusia ez den eskua) eta jarri irudiak adierazten duen bezala.

Oximetroaren sentsore digital berrerabilgarria




Sentsore digital berrerabilgarria jartzeko, irristatu esku nagusia ez denaren hatz nagian, irudian agertzen den bezala.

**Probaren hasiera**




Hauxe da sistema osoaren itxura zuzen

instalatuta badago.



1. Sakatu gailuaren erdian dagoen abiarazteko botoia gutxi gorabehera hiru segundoz edo argia piztu arte.



- 2.- Egiaztatu erabiltzen ari zaren osagarrien ondoan dauden argiak kolore berdez daudela. Argietakoren bat kolore gorritz badago eta keinuka ari bada, osagarria ez dago ongi konektatuta

***Oharra:** erregistroa hasi eta, gutxi gorabehera, 10 minutura argi adierazle guztiak motelduko dira (baina piztuta jarraituko dute).*

**Esnatzean, GELDITU ERREGISTROA (STOP):**

Hasiera/gelditzeko botoia 3 segunduz sakatuta izan segidako bi alditan, argi berde adierazlea itzali arte. Ez kezkatu itzaltzen ez bada.

Kendu sudurreko kanula eta atzandela.

Bildu ekipo guztia arretaz eta sartu poltsan.

Bete eman zaizun galdeketa-orria eta sartu poltsaren alboko sakelan.

Eraman gailua goiz horretan bertan adierazitako lekura.